Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

PATRUILA IBILGAILUAK ALOKAIRU ERREGIMENEAN KONTRATATZEA

– PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA / PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS –

***ARLO SUSTATZAILEA* / ÁREA PROMOTORA**	EROSKETA ETA EKIPAMENDUAK / COMPRAS Y EQUIPAMIENTOS
***ESPEDIENTE KODEA* / CÓDIGO EXPEDIENTE**	2023ZAUN0047

Dokumentua balioztatzeko / Verificación del documento en:
http://www.irun.org/validador
Balioztapen kodea/Código de verificación: 5MKI-IA07-Z1CB-WEO0

Sinadura elektronikoaren egilea eta data / Autor y fecha de la firma electrónica
Monica Casla Salazar JEFA COMPRAS Y EQUIPAMENTOS (14/06/2023 14:03 CEST)

1. KONTRATUAREN XEDEA ETA IRISMENA

Kontratu honen xedea da Irungo Udaltzaingorako patruila ibilgailuak alokairu erregimenean hornitzea. Behar diren ibilgailuen ezaugarri teknikoak eta zerbitzuaren baldintzak azalduko dira ondoren.

Europako Batasunak klima aldaketari eta energiari buruz onartutako neurriak, Irungo Udalerrirako Energia Jasangarriaren Jarduera Plana eta Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun indarrean dagoen jasangarritasun energetikoaren arloko legeria betetzeko, erregai alternatiboak erabiltzen dituzten patruila ibilgailuak erostea proposatu da.

2. UDALTZAINGORAKO IBILGAILUAK

Aurreko atalean deskribatutako kontratuaren irismena eta xedea kontuan hartuta, Irungo Udalak espediente honetan Udaltzaingoarentzat erosi nahi dituen ibilgailuek "erregai alternatibo garbia" kalifikazioa izan beharko dute. Alde horretatik, udaltzaingoaren flotaren beharrak aztertu eta merkatuko egungo alternatiba teknologikoak baloratu ondoren, egokiena iritzi zaio patruila ibilgailu berriak hibrido entxufagarriak izatea.

Hori dela eta, erosi beharreko bi ibilgailuentzat (prozedura honen xedea), polizia funtzioek eskatzen duten motorrak entxufa daitekeen motor hibridoa izan behar du, elektrikoan funtzionatzen duena, eta eztanda motorra aurrekoaren laguntzaile izango duena, lehena agortzen bada edo prestazio handiagoa behar bada.

Beraz, kontratu honen xedea da **gutxienez bi ibilgailu hibrido entxufagarri eraginkor hornitzea**, guztiak jarraian adierazten den errotulazioarekin, eta zehaztutako eraldaketarekin, barne hartuta argi zubia, atxilotuak bereizteko ekipamendu homologatua eta ondoren deskribatzen diren gainerako elementuak.

Eskainitako ibilgailuak auto berriak izango dira, eta baldintza teknikoen orri honen xede diren eraldaketa eta ekipamendua ezarriko zaizkie, eskatutako ezaugarriekin, eta kontratua sinatzen den egunean seriean fabrikatzen ariko dira. Behar diren ekipamenduak ezartzeko eraldaketak egin ondoren, serieko modeloen itxura eta amaiera berberak izango dituzte ibilgailuek. Eraldaketarako, uztailaren 2ko 866/2010 Errege Dekretuan eta indarrean dagoen araudian ezarritakoa hartuko da kontuan.

Ez da onartuko fabrikatzaileak berak serieko modeloetan jarritakoez bestelako marka, logotipo edo anagramak kanpotik dituen ibilgailurik.

Ibilgailu guztiek dagokien homologazioa eta IAT gainditua izan beharko dute, eta horrekin loturik behar den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3. ALOKAIRU ZERBITZUAREN DESKRIBAPENA

3.1. DENBORALDIA

Kontratuak lau (4) urteko iraupena izango du, berrogeita zortzi (48) hilekotan banaturik.

3.2. HILEKO KUOTA

Ibilgailuen alokairu kanonari dagokion hileko kuota eskaini beharko da, baldintza agiri hauetan zehazten diren ekipamendu eta zerbitzu guztiekin. Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Agirian adierazten den bezala, eskatutako bi ibilgailuetako bakoitzari dagokion prezioa adierazi beharko da, bai eta 2. prezioan adierazten den unitateko prezioen zerrenda ere. Udalak elementu horiek kontratatu ahal izango ditu, baina haietako batzuk bakarrik aukeratzen ahal izango ditu aurrekontuan dagoen diruaren arabera. Elementu horien fakturazioa bi ibilgailuena bezalakoa izango da, hau da, hileko kanon bat, 48 hilabeteko iraupenarekin eta entrega epe berarekin.

Espedientea, beraz, kontratuaren gehieneko balioan oinarrituta planteatzen da, eskatutako itemetarako eskainitako prezioak oinarritzat hartuta, eta Irungo Udalak ez du inolako konpromisorik hartuko III. eranskinean “Prezioen zerrenda” eskatutako prezio unitario horiek kontratatzeko (prezio unitarioen aukeren alokairu aurrekontua).

3.3. HOBARIA/PENALIZAZIOA KILOMETRAJEAGATIK

Eskainitako hileko prezioa urteko 35.000 km-ri dagokiona izango da. Kontratua bukatutakoan, sortutako soberakinaren eta gabeziaren konpentsazioa egingo da, bi ibilgailuak batera hartuta. Konpentsazio horretatik ateratzen den kilometro-kopurua +/- % 2 baino handiagoa bada, eskainitako prezioan ordaindu edo itzuliko da, , dagokionaren arabera. Soberakin/gabezia horren kalkulua bi ibilgailuen batuketa metatuari dagokionez, kontratuaren amaieran metatutako datuen arabera egingo da eta guztizko gabezia edo soberakin kopuru metatua bakarrik kalkulatuko da, eta horixe izango da eskainitako prezioaren arabera ordainduko dena.

3.4. FAKTURAZIOA

Ibilgailu bakoitzaren hileko kuota hilabete bakoitza bukatutakoan ordainduko da, eta denbora horretan emandako zerbitzuaren ordaina izango da.

3.5. MANTENTZE INTEGRALEKO ZERBITZUA

Enpresa esleipenduna izango da hornitutako ibilgailuen mantentze lan integraleko zerbitzuaz arduratuko dena. Kontratuak irauten duen bitartean, ibilgailuek egoera funtzional eta estetiko ezin hobean egon beharko dute beti, kontratua normaltasunez eta legez bete ahal izateko. Mantentze lanak dagozkien zerbitzu ofizialetan eta/edo berariaz hitzartutako tailerretan egingo dira, esleipendunaren ardurapean.

Ibilgailuen mantentze lanak egin ahal izateko enpresak eskainitako tailerren guztizko kopurua baloratuko da. Eskainitako tailerren gehieneko distantzia 15 km-koa izango da Irungo Udaltzaingoaren komisariatik (Juan Thalamas, 21). Enpresak gutxienez tailer mekaniko bat eskaini beharko du Irunen.

Kontratu honen xede diren ibilgailuen edozein konponketa motatarako izendatutako tailerrek Irungo Udalaren onespena izan beharko dute, eta, gainera, kasu bakoitzean zein tailerretan konponduko den erabaki ahal izango du. Tailer horiek zorrotz bete beharko dute ingurumenaren arloan indarrean dagoen araudia, ibilgailuen hondakinak eta botatzeko materialak deuseztatzeari dagokionez.

Tailerrek nahikoa leku izan beharko dute ibilgailuak leku itxi eta seguru batean eduki ahal izateko, eta ez dira partikularren eskura egongo. Ibilgailu bat konpontzean tailerrez aldatu behar bada, polizia arduradunei jakinarazi beharko zaie nahitaez.

Matxurak edo istripuak itundutako tailerretan konponduko dira, markek konponketa horietarako ezarritako epea gainditu gabe. Epean berandutzeak ibilgailuaren kuota erregularizatzea ekarriko du atzerapen egun bakoitzeko, eta ondorengo fakturazioan deskontatu da haren zenbatekoa. Konponketa lanek hamabost egun baino gehiago irauten badute, Irungo Udalak ez du ordainduko dagokion hilabeteko kuota. Konponketa lanek 30 egun baino gehiago eta 45 egun baino gutxiago irauten badute, berriz, Irungo Udalak ibilgailu matxuratuaren bi hilabetetako kuota ordaintzeari utziko dio, eta, horrela, proportzionalki. Gainera, baldintza ekonomiko administratiboen pleguak aipatzen dituen zigor eta ezeztapen baldintzak aplikatu ahalko ditu Udalak.

Enpresa arduratuko da erabileragatik edo higaduragatik eta matxurengatik egin beharreko konponketa guztiak egiteaz, bai eta IATak (beharrezkoa bada) eta ibilgailuaren mantentze liburuak ezarritako mantentze lan guztiak egiteaz ere. Gainera, pneumatikoak ordezkatzeaz arduratuko da, betiere baldintza agirian ezarritako baldintzetan.

Esleipendunaren kontura izango dira behar dituzten piezen mantentze, konpontze edo ordezte lan guztien kostuak, horien artean direla, adierazpen gisa eta ez muga gisa, olioaren, lubrifikatzailearen, likidoen, pastillen aldaketak edo betetzeak, bai eta beste edozein ordezko (pneumatikoak barne) ezartzea, eskulana, xafla eta pintura, IAT aurreko eta IAT eragiketak ere, arrazoiak edozein direla ere, eta haien erabilera eta funtzionamendua egokiak direla bermatuko du. Erabili beharreko ordezko piezak jatorrizkoak edo fabrikatzaileak ziurtatutakoak izango dira. Erregaiaren kontsumoa soilik izango da Irungo Udalaren kontura.

Esleipendunaren kontura izango dira kalte, matxura edo istripuren bat dela eta ibilgetuta dauden ibilgailuak matxura edo istripua izan den lekutik garabiz eramateak eragindako gastuak, eta polizia bulegoetara edo itundutako tailerretara eraman beharko dira, udaleko arduradunen jarraibideei jarraituz.

Esleipendunak 24 ordu eta 365 eguneko telefono zenbakia izango du, baita helbide elektroniko bat ere, kudeaketa guztiak egiteko eta gorabeherak konpontzeko. Jarduteko protokolo bat adierazi beharko da matxurak, istripuak, abisuak, mantentze lanak eta jakinarazpenak jakinarazi eta jasotzeko.

3.5.1. KONPONKETAK:

Ibilgailua tailerrean jasotzen denetik, gehienez ere epe hauek egongo dira azterketak egiteko eta matxurak konpontzeko:

a. Markak ibilgailuaren mantentze liburuan ezartzen dituen aldizkako azterketak, hala ordezko piezak eta likidoak nola eskulana, **gehienez ere 48 ordutan** egingo dira.
b. Gurpil zulatzeak edo antzekoak: **gehienez 48 ordutan.**
c. Ibilgailuen erabileraren ondoriozko higadurak eragindako matxura guztien konponketak **gehienez ere 5 laneguneta**n egingo dira.
d. Txapa eta pinturaren konponketa garrantzitsuetarako eta konponketa mekaniko edo elektrikoetarako, **gehienez ere 15 laneguneko epean**.

Esleipendunak askatasuna izango du txapa eta pinturari buruzko konponketak egiteko karrozeria aukeratzeko. Udaleko teknikariek gainbegiratu ahal izango dituzte konponketak.

Era berean, Udaletik kanpoko pertsonen "ekintza bandalikoek" eragindako kalteen konponketa ere jasoko da (kristalak haustea, barruko estalkiak, bereizteko manpara, distiren zubia, polizia igorgailua, sirenak eta bozgorailuak, etab.), zerbitzuaren ondorioz gertatzen badira eta estaltzen ez baditu.

Enpresa esleipendunak ohiko kanpoko garbiketa egingo du ibilgailua konpondu ondoren, esleipendunak bere eskaintzan adierazitako tokian, eta Irunen edo oso inguru hurbilean egon beharko du.

Enpresa esleipendunak bere gain hartu beharko ditu erabilera intentsiboaren ondorioz hondatzen diren barnealdeko elementuen mantentze lanak eta konponketak (eguzki babesak, eragiteko aginteak, leihatilak, berokuntza, airea, eserlekuak, alfonbratxoak, pedalen gomak eta antzeko gainerako elementuak).

Ibilgailu bakoitzaren ezaugarri teknikoetan ekipamendu gisa eskatzen diren elementuak, baldin eta, dituzten ezaugarriak direla-eta, kontratua amaitu bitartean honda badaitezke (matxurak seinaleztatzeko triangeluak, txaleko islatzaileak, argi seinale eramangarriak…), ez dira osorik itzuli beharko kontratua amaitzean.

ABC hautseko su itzalgailuak (halakoak dituzten ibilgailuetan) mantentzeko, kargatzeko eta ordezteko lanak eta urtero egin beharreko ikuskapenak esleipendunak egingo ditu.

Enpresa esleipendunak ibilgailuen txosten bat aurkeztu beharko du urtero, honako datu hauekin:

- Ibilgailu bakoitzaren kilometrajea.
- Aldatutako pneumatikoen kopurua, pneumatiko zaharrak zein kudeatzaileri entregatu zaizkion adierazita.
- Urtean zehar egindako konponketak.

3.5.2. PNEUMATIKOAK

Pneumatikoak ordeztu egingo dira errodatze bandaren erliebea 1,6 mm-koa edo txikiagoa bada, edo inguruabarrek edo egoerak hala gomendatzen badute, eta bi kasuetan, egindako kilometro kopurua edozein dela ere. Pneumatikoen orekatzea eta lerrokatzea ere barne egongo dira.

Pneumatiko berriek fabrikatzaileak jatorrian jarritakoen ezaugarri berberak izan beharko dituzte, eta ordezkapenak beti egingo dira binaka ardatz bakoitzeko (2 edo 4).

Pneumatikoak Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak ezarritako araudiaren arabera ordeztuko dira, baldin eta ibilgailuaren segurtasunari eragin diezaiokeen narriadurarik hautematen bada, eta betiere 30.000 km-tik behin.

Barne egongo da pneumatikoak aldatzea zintarriaren kontra jotzeagatik eta/edo lehertzeagatik, ekintza bandalikoengatik eta pneumatikoaren kalitateak ezkutuan dituen akatsengatik.

3.6. ASEGURUA

Ibilgailuek arrisku orotako asegurua izan beharko dute, frankiziarik gabe. Aseguru hartzailea enpresa esleipenduna izango da Irungo Udalaren izenean, eta esleipendunaren kontura izango dira horren ondorioz sortzen diren gastu guztiak.

Bi ibilgailuentzako aseguruek honako estaldura hauek izan beharko dituzte gutxienez:

- Nahitaezko erantzukizun zibila 50.000.000 euroko mugarekin.
- Erantzukizun zibil osagarria.
- Defentsa, defentsa penala, laguntza juridikoa, fidantzak eta kalteen erreklamazioak barne.
- Gidariaren eta bidaiarien gutxieneko asegurua, gutxienez honako estaldura hauek bermatuta:
    - Heriotza: 60.000 euro.
    - Baliaezintasuna, baliaezintasun iraunkor progresiboa barne: 60.000 euro.
    - Osasun laguntza mugagabea, betiere zentro onartuetan ematen bada eta gehienez ere urtebeterako.
- Udaltzaingoaren ibilgailuetarako ohiko gidari bat seinalatzea oso zaila denez, ulertuko da plantillako edozein gidari, edozein direla ere adina eta antzinatasun urteak, halakotzat onartzen dela.
- Gidariarekin batera doazenak, betiere, hirugarrenak izango dira gidariari dagokionez.
- Ibilgailuak eta haren osagarri eta ekipo guztiek jasandako kalteak, frankiziarik gabe.
- Ibilgailuaren edo haren osagarrien lapurreta.
- Beirak haustea edo hondatzea eta ordeztea.
- Kalte zinegetikoak
- Errepidean egunean 24 orduz laguntzea, urte osoan, 0 km-tik hasita. Gutxienez, honako hauek jaso beharko ditu: ibilgailua in situ konpontzea, horretarako aukera ematen duten esku hartze guztietan. Atoia dagokion tailerreraino. Ibilgailuaren salbamendua eta zaintza gastuak. Bidaiarien eta zaurituen garraioa.
- Kontratatutako poliza guztiek estalitako arriskuek ez dute mugarik izango ibilgailuen zirkulazioaren eremuan, ez eta zirkulatzen ari diren bide motari dagokionez ere. Horrenbestez, estalita geratuko dira bide publiko edo pribatuetatik kanpo sortutako kalteak, baso pistak, nekazaritza bideak edo antzeko ezaugarriak dituztenak barne.
- Enpresa esleipenduna arduratuko da ibilgailuen aseguruak berritzeaz edo konpainia aldatzeaz eta Irungo Udalari haien berri emateaz. Ibilgailuaren aseguruarekin zerikusia duen edozein gorabehera berehala jakinarazi behar zaio Udaleko arduradunari.
- Enpresa esleipendunak ibilgailuen aseguruaren kopia aurkeztu beharko du, bai eta ordainagiri eguneratuena ere.
- Esleipendunak ezin izango ditu hasierako polizaren baldintzak aldatu administrazio kontratatzailearen kalterako. Hasierako baldintzak aldatzeko, aldez aurretik idatzizko baimena beharko da.

- Ibilgailuetakoren batek errepideko laguntza zerbitzua (garabia) behar badu itundutako tailerrak irekita dauden ordutegitik kanpo, Irungo Udaltzaingoaren bulegoetan utziko da, konpondu behar den itundutako tailerra ireki arte, eta berriz ere garabian eramango da hara.
- Ibilgailuaren erabateko ezbeharra gertatuz gero, kalte ordaina eta ibilgailuaren hondakinak esleipendunari pasako zaizkio.
- Ibilgailuari baja ematen zaion kasu guztietan, bai eta alokairu kontratua amaitzean ere, esleipendunaren erantzukizuna izango da ibilgailuetan instalatutako polizia ekipo guztiak kentzea (argi zubia, sirenak eta, oro har, polizia erabilerako edozein ekipo), bai eta Irungo Udalari eta Irungo Udaltzaingoari dagozkien ezkutuak eta ikurrak kentzea ere, hirugarren pertsona fisikoei edo juridikoei entregatu aurretik. Bitartean, ibilgailuek bide publikotik kanpo aparkatuta egon beharko dute, leku itxi batean, bertara ez sartzeko moduan ibilgailu horien erabilera desegokia egin dezakeen edo Udaltzaingoaren irudiari eragin diezaiokeen jendea.
- Era berean, behin betiko bajaren kasuan, ibilgailuaren balio bizitza amaitzen denean, esleipendunak ibilgailua utzi beharko du, eta zuzeneko tratamendurako zentro baimendu bati entregatuko dio edo harrera instalazio baten bidez. Entrega hori dagokion txatarreratze ziurtagiriaren bidez formalizatuko da, Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroan ibilgailuaren behin betiko baja justifikatuko duena.

3.7. ZIGORRAK

Ibilgailuaren egoeratik, haren dokumentazio administratibotik eta indarreko legeriak ezartzen dituen berrikuspenak ez egiteagatik etorritako zigorrak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.

Ibilgailua gidatzearen ondoriozko gainerako zehapenak erakunde errentariaren, dagokion administrazioaren edo gidariaren kontura izango dira, kasu bakoitzaren arabera.

Erabateko ezbeharren kasuan, bertan behera geratuko da eragindako ibilgailuarekiko kontratua. Kasu horretan, kilometrajearen likidazioa egingo da, ibilgailuak egindako kilometroen eta igarotako denboraren arabera, eta, une horretatik aurrera, ibilgailu horri dagozkion kuotak fakturatzeari utziko zaio.

Auto bat erabateko ezbehar gisa zehazteko irizpidea eraldaketaren balioa ere kontuan hartuta egingo da. Kalkulua egiteko, transformazio balioaren balio galera proportzionala hartuko da kontuan transformaziorik gabeko ibilgailuaren balio galerarekiko, aseguru erakundeek erabilitako balorazio baremoaren arabera.

4. IBILGAILUEN EZAUGARRI TEKNIKOAK

Jarraian, hornitu beharreko ibilgailuek bete behar dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak zehaztuko dira:

4.1. IBILGAILUEN GUTXIENEKO EZAUGARRIAK


Ibilgailuak ahalik eta ekologikoenak eta eraginkorrenak izatea nahi da, bai jardunean, bai mantentze lanetan. Hori dela eta, aurreko ibilgailuak partikula, CO_2 eta bestelako errekuntza gas gutxi dituzten ibilgailuekin ordezkatzea planteatzen da. Kontuan hartuta ibilgailuek egunean 24 orduz erabilgarri egon behar dutela eta Poliziak erabiltzeko baldintzak bete behar dituztela, eskatzen da, motor elektrikoa agortzen bada, ibilgailuak eztanda bidez zirkulatu ahal izatea. Hori dela eta, **motorizazio hibrido entxufagarria duten ibilgailuak eskatzen dira**, eta eztanda motorra bestearen laguntzailea izan dadila hura agortzen bada edo prestazio handiagoa behar bada.

Ibilgailu guztietan Irungo Udaltzaingoaren identifikazioa sartu beharko da errotulazioan, bai eta argi zubiaren, alboko argien eta maletategiaren hornidura eta instalazioa ere. Horrez gain, atxilotuak eramateko kit homologatua, maletategiaren babeslea eta eskatutako elementu gehigarriak sartu beharko dira. Horiek guztiz homologatuta egon beharko dute eta IAT baimenarekin.

Ibilgailuen maletategiko zorua babestu egin beharko da, urari eta zikinkeriari aurre egiteko materialez egindako babesgarriarekin. Eskainitako modeloek metalezko sabaia izan beharko dute, eta ez dira onartuko beirazko sabaia duten modeloak.

Alderdi garrantzitsuenetako bat ibilgailuaren ergonomia da, bai eta nahiko leku izatea ere pilotuaren eta kopilotuaren aurreko aldean nahiz atxilotuak eramateko gunean. Hainbat agentek erabiliko dituzte ibilgailuak, eta, beraz, neurri minimo nahikoak izan behar dituzte altuera edo tamaina handiko agenteek erabili ahal izateko.

Horretarako, ibilgailuari dagozkion neurriak adierazi beharko dira, ondoko "II. Eranskina, Ibilgailuaren neurriak" marrazkiaren arabera, atxilotuen kit homologatuaren instalazioa eta egin beharreko eraldaketa kontuan hartuta.



NEURRIAK

DISTANTZIA	MM
A	
B	
C	
D	
E	
F	
G	
H	
I	

Jarraian, hornitu beharreko ibilgailuek bete behar dituzten gutxieneko ezaugarri teknikoak zehazten dira:

ZEHAZTAPENAK	BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAN ESKATUTAKO GUTXIENEKO EZAUGARRIAK
Karrozeria mota	SUV / Monobolumena
Karrozeriaren kolorea	Zuria, zehaztutako errotulazioarekin
Erregaia	Hibrido entxufagarria
Okupatzaile kopurua	5 plaza
Gutxieneko potentzia konbinatua	130 ZP baino gehiago
Direkzioa	Lagundua
Atxilotuen kit homologatua	Bai
Ate kopurua	5 ate
Aurreko ateak	Irekitzeko orriak
Atzeko ateak	Orri irekitzea, aurrekoen noranzko berean. Ez da ate lerragarririk onartuko
Atzeko karga atea	Atzeko atea, gorantz irekitzen dena
Luzera	4300 mm eta 4650 mm artean
Gutxieneko altuera	1520 mm
Gutxieneko zabalera (Ispilurik gabe)	1800 mm
Maletategia	Gutxienez 320 litroko edukiera 5 plazako konfigurazioan, edo ondoko elementu hauek antolatzeko eta erraz eskuratzeko gutxieneko edukiera duena: Desfibriladorea Esku hartzeko ezkutua (1000x600mm) 6 seinaleztapen kono edo antzekoak Plastikozko zinta biribilkia 1 zizaila 1 palanketa 1 botikin 1 su itzalgailu 1 neurketa gurpil tolesgarri 400x400 mm-ko seinale tolesgarrien maleta bat Esku hartzeko bi kasko Maletategiko atzeko erretilua, zurruna eta oinarri laukoa
ABS	Bai
Trakzioaren eta egonkortasunaren kontrola	Bai
Larrialdiko balaztatzeari laguntzeko sistema	Bai
Aurreko eta atzeko disko balaztak	Bai

Segurtasun pasiboko sistema	Airbagak aurrealdean, alboetan eta gortina edo burualdean, aurreko bi plazetan
Aire girotua	Bai
Klimatizagailua	Bai
Aurreko eta atzeko aparkatzeko sentsoreak	Bai (atzekoaren ordez, kamera izan dezake)
Ixte zentralizatua eta urrutiko agintea duena	Bai
Lainotako aurreko eta atzeko argiak	Bai
Kanpoko atzerako ispilu bikoitza bi aldeetan, ibilgailuaren perimetroa kontrolatzeko	Bai
Aurreko eserleku ergonomikoak, altuera erregulatzeko modukoak eta gerrialdean atseden hartzeko sistemarekin	Bai
Eserlekuak sendoak eta indartuak alboetan, armaren marruskadurek eragindako higaduraren aurka, eta bizkarraldean eta alboetan sendotuak	Bai
Bolante erregulagarria altueran eta sakoneran	Bai
Argiak automatikoki pizteko sentsorea	Bai
Gurutzatze abiaduraren kontrola	Bai
Euri sentsorea	Bai
Mapa irakurgailua / GPS	Aukeran
Aurreko xenon argiak	Bai
Beroaren aurkako beirak	Bai
Beira tindatuak	Bai
Atzerako ispilu elektrikoak eta termikoak	Bai
Zorura egokitutako gomazko alfonbratxo desmuntagarriak, erresistentzia handikoak	Bai
Bluetooth esku libreen sistema	Bai
12 V-ko hartualdiak (gutxienez aurrealdean eta maletategian)	Bai
Pneumatikoen presioa kontrolatzeko sistema	Bai
Pneumatiko mota: erregaiaren eraginkortasuna, bustian eustea, kanpoko zarata maila	Adierazi

Ekipamenduari eta karrozeriari dagokienez, kontuan hartu beharko da oso garrantzitsua dela agenteek eragin behar dituzten aginteen diseinua egokia egitea, bai eta polizia zereginaren barruan interpretatu behar dituzten seinaleak ere, akatsak, nekea eta istripuak murrizteko.

Ekipamendu osoak indarrean dagoen legeria bete beharko du, eta ibilgailuak behar bezala homologatuta egon beharko du, dokumentazio eguneratuarekin eta behar bezala eta IATarekin.

Hasiera batean, Irungo Udaltzaingoaren komisarian (Juan Thalamas kalea, 21) entregatuko dira ibilgailuak, udal teknikariek kontrakoa adierazi ezean. Ibilgailuak egoera ezin hobean entregatu behar dira, zerbitzuan

jar daitezen. Kontratua amaitzean, esleipendunak ibilgailuak dauden egoeran eta lekuan jasoko ditu, gehienez ere 45 eguneko epean.

Ibilgailuek honako material hau izan beharko dute gutxienez:

- 100 metroko balizatze zintako biribilkia.
- Metalezko palanka erresistente bat, 500 mm inguruko luzerakoa, uñeta deiturikoetakoa.
- Balizatzeko bi kono.
- 2 triangelu eta txaleko homologatu. Triangelu euskarri multzoa tolesgarria izango da.
- 6 kg-ko hautsezko su itzalgailu kargagarria.
- Lehen laguntzetako botikina. DIN 13164 araua bete beharko du. Arau horren arabera, ibilgailuentzako lehen laguntzetako botikinak gutxi gorabehera 750 gramoko pisua izan behar du, eta gutxi gorabehera 260x170x80 mm-ko neurriak. Plastikozkoa izango da eta kolpeen aurrean erresistentea. Honako hauek izan beharko ditu: hainbat neurriko aposituak, hainbat neurriko bendak, oihal esterilizatuak, konpresa esterilizatuak, hainbat neurriko benda elastikoak, triangelu formako bendak, esparatrapu biribilkia, manta termikoa, binilozko eskularruak, guraizeak, konpresak, toallatxoak...

Ibilgailuaren ordezko gurpilaren neurriak jatorrizko 4 gurpiletan seriean dituen berak izango dira. Ez da beharrezkoa izango etengabean maletategian edukitzea, polizia instalazioetan baizik.

4.2. AUTOREN BARNEALDEA ETA EKIPAMENDUAREN BANAKETA

Ibilgailua 3 gune bereizitan banatuko da:

4.2.1. Gidatzeko gunea.

Ibilgailua gidatzen den gunea da. Aurreko eserlekuak serieko ibilgailuan muntatutako jatorrizko ibilbide osoan mugitu eta erregulatzeko moduan egokituta egongo dira polizia zuzkiduraren instalazioa eta atxilotuen kita.

Gune horretan honako sistema hauek instalatuko dira:

- Komunikazio sistemak (Motorolaren Tetra igorgailua; espediente honetan ez da beharrezkoa hura hornitzea, soilik dagokion aurreinstalazioa egitea).
- Zubi argien eta sirenen agintea.
- Linterna kargagailuak, konoekin eta haietarako euskarriarekin.
- Argiztapen sistema, irakurtzeko eta txostenak idatziz egiteko argia izateko.
- Atxilotuen guneko ateak irekitzeko kontrol sistema. Begiz kontrolatzeko sistema izango du, zer egoeratan dagoen (irekita, itxita) jakin ahal izateko.
- Tapizazio indartuko eserlekuak, porren eta pistolen urradurari eta igurtziari aurre egiteko.
- Barruko atzerako ispilu bikoitza, atxilotua aurreko bi eserlekuetatik kontrolatzeko.
- Kanpoko atzerako ispilu bikoitza ibilgailuaren albo bakoitzean, bai gidariak bai laguntzaileak ibilgailuaren perimetroa kontrolatzeko.

4.2.2. Atxilotuen gunea

Ibilgailu horiek bigarren eserleku ilaran, gidariaren eta laguntzailearen atzean, atxilotuen gunea izango dute, atzeko eserlekuak hartzen dituena. Atxilotuen guneko hormak eta zorua iragazgaitzak eta erraz garbitzeko modukoak izango dira. Atxilotuen guneko zoruak hustubidea izan beharko du. Gune horretako ateak kanpotik bakarrik ireki ahal izango dira, eta atxilotuaren atea larrialdietan irekitzeko sistema mekanikoa eduki beharko du.

Gune horretako materialen osaerak akabera laua eta plastifikatua izango du errazago garbitzeko, eta torlojuzko euskarriak ezkutatu egin beharko dira. Konpartimentua eta euskarriak finkatzeko elementu guztiek ezkutuan egon beharko dute.

Aire behartua igarotzeko aireztapen sistema izango du ibilgailuaren sabaian, eta ibilgailuaren aurreko aldetik eragingo zaio hari, aurreko panelean kokatutako etengailu baten bidez. Gune horretako airea ez da nahasiko aurreko guneko airearekin.

Atxilotuaren eserlekuak material erresistentea eta erraz garbitzeko modukoa izango du. Plastiko erresistenteren batez egindako eserlekua ere izan daiteke. Eserleku hori eta segurtasun uhala eta ainguraketak homologatuak izango dira eskainitako ibilgailurako.

4.2.3. Maletategia

Ibilgailuaren atzeko aldean dagoen gunea da, polizia ekipamendua edukitzeko. 4.1 eta 4.6 ataletan adierazten dira beharrezko ezaugarriak eta eraldaketa, bai eta bertan zer ekipamendu eduki behar den ere.

4.3. ARGI ZUBIA ETA SIRENA

4.3.1. IBILGAILUAREN SABAIA

Ibilgailu bakoitzeko seinaleztapen zubi BAT (1) instalatuko da, diseinu aerodinamikoa duena, ibilgailuaren goiko aldean ezin hobeto integratzeko; 2 mailako altuera izango du ibilgailu bakoitzarentzat, gehienez ere 1.200 mm-ko luzerakoa, eta honako konfigurazio hau izango du:

4.3.1.1. Goiko maila

- Bozgorailu bat zubian integratua, gutxienez 100W-eko potentzia (L/C) duena, aurreko erdiko aldean egokitua.

- 20-22 Led modulu bat, 3 w-koa, urdina, 12-24 v-ko zubiaren albo bakoitzerako, ibilgailuaren aurrealdetik, albotik eta atzealdetik ikusteko modukoa.

- Aurreko moduluetako gurutzatze argia. Modu independentean eragingo zaie ibilgailuaren barruan instalatutako kontrol aginteari dagokion botoi independente baten bidez.


4.3.1.2. Beheko maila

Aurrealdean

- Gutxienez bi (2) led foku zuri, gutxienez 6 led bakoitzak, argi handia egiten dutenak eta eremu zabalekoak.

- Gutxienez bi (2) led foku zuri, gutxienez 6 led bakoitzak, argi handia egiten dutenak eta eremu zabalekoak, mutur bakoitzean bana, ahal izanez gero aurrealdetik 45º-ra kokatuta.

- 2 led modulu gorri keinukariak, 12-24 v-ko telefonogunearekin, agintearen larrialdi argien botoiari edo ibilgailuaren barruko kontrol kontsolari konektatuak.



Alboan: Led zuriko bi (2) aurrealdeko foku, gutxienez 6 led bakoitzak, argi handia egiten dutenak eta eremu zabalekoak, mutur bakoitzean bana, aurrealdearekiko 90º-ko angeluan.

Atzealdea: 8 moduluko led barra. Anbar koloreko potentzia handia, ibilgailuaren aginteari edo barne kontroleko kontsolari atxikitako kontrolagailu independentearekin.

4.3.2. IBILGAILUAREN AURREALDEA

- **Barrualdean**, aurreko panelaren erdialdean jarria eta bentosen bidez kristalera finkatua, LED FOKO BAT (1) instalatua eta argi zubiaren larrialdiko pizte botoi berera konektatua, kolore urdin eta gorriko pizte alternatiboarekin.

- **Kanpoaldean**, aireztapen saretaren mutur bakoitzean integratuak, Led argi trinkotuen 2 sistema, kolore urdin eta gorriko argiztapen alternatiboarekin. Argi horien tamaina ibilgailua aireztatzeko saretaren neurrien araberakoa izango da.

4.3.3. IBILGAILUAREN ALBOAN

- Argi trinkotuen sistema instalatuko da, gutxienez 6 led urdin dituena aurreko kolpe-leungailuaren albo bakoitzean, haren erdi parean (ibilgailu modeloaren arabera zehaztuko da).
- Argi trinkotuen sistema instalatuko da, gutxienez 6 led urdin dituena atzeko kolpe-leungailuaren albo bakoitzean, haren erdi parean (ibilgailu modeloaren arabera zehaztuko da).

Sistema horiek pizteko, kontsolan edo ibilgailuaren barnean jarritako kontrol agintean sakatzen den botoia erabiliko da. Hau da, larrialdia sakatuz gero, pizte sistema larrialdikoa izango da, eta gurutzatzea sakatuz gero, gurutzatze argia piztuko da.



4.3.4. IBILGAILUAREN ATZEALDEAN

Argi trinkotuen bi (2) sistema instalatuko dira, gutxienez 6 led urdin atzeko atearen barruan, markoan (ahal dela integratua), atzeko atea irekita badago larrialdiko seinaleak estali ez daitezen. Ibilgailuaren barruan instalatutako kontsola edo kontrol agintearen larrialdi botoi berera konektatuak.

4.4. KANPOKO ERROTULAZIOA

Jarraian, hornitu beharreko ibilgailuen beharrak deskribatuko dira kanpoko errotulazioari dagokionez. Itsasgarrien bidez egin beharko da, indarrean dagoen araudia beteta.

Ibilgailuak errotulatu aurretik, esleipendunak diseinua aurkeztu beharko du, teknikariek azken onarpena eman diezaioten. Jarraian, ibilgailuek alde desberdinetan eraman behar dituzten errotulazioaren gutxieneko ezaugarriak deskribatuko dira:

Irungo Udalak ibilgailuaren logotipoak, ikurrak edo modelo markaren adierazleak kentzeko eskatu ahal izango du, baldin eta patruila ibilgailuaren errotulazioa jarri behar den lekuan badaude.

4.4.1. ALBOKOA

Alboan zerrenda **beltzak** jarriko dira, ibilgailuaren luzera izango dutenak, eta gainerako dimentsioak ibilgailu motaren arabera zehaztuko dira, gainerako elementuekiko ikuspegi, bereizketa eta harmonia hobea izateko (ikus irudia).



4.4.2. LOGOTIPOAK

1. irudia (Udaltzaingoaren logotipoa), 240 mm diametrokoa, bi alboetako aurreko ateetan, goiko lerro etenen eta atearen edergailuaren artean ongi zentratua.

10 URTEKO KALITATEKO BINILO AUTOITSASGARRIAREN LERROAK:

Luzetarako lerroa, 70 mm-ko lodierakoa, alboko ateen beheko aldean, ibilgailua bere albo osoan zeharkatzen duena. 3M materiala, 280-72 erreferentziakoa edo antzekoa (gorri islatzailea).

LEGENDAK ARIAL BLACK LETRA TIPOAN:

- **"POLIZIA"** kolore zuri islatzailean, 90 mm-ko altuerakoa, atzeko atean dagoen espazioaren erdian kokatua eta luzetarako lerro beltzaren gainean jarria.
- **"A-12"** (edo auto bakoitzari dagokiona), aurreko atearen eskuineko beheko erpinean, marra gorri islatzailearen gainean, 90 mm-ko altuerakoa aurrealdeko bi hegaletan.
- 092 Atzeko bi hegaletan kokatua, gehienez 90 mm-ko altuerakoa (egungoaren berdina), telefonoaren piktograma gorriz eta testua beltzez.
- Aurreko alboko atearen erdian udalerriko armarria agertuko da, 110 mm-ko altuerakoa, eta 'IRUN' legenda kolore zuri islatzailean, 40 mm-ko altuerakoa.

4.4.3. SABAIAN

Ibilgailuaren izena Arial Black letra-tipoan, 270 mm-ko altuerakoa kolore beltzean, argi zubiaren eta atzeko atearen artean dagoen espazioaren erdian (ikus irudia).



4.4.4. ATZEALDEAN

Ibilgailuaren alde honetan errotulazio egokia bermatzeko, jarraian deskribatutakoaren arabera, bertan ez du izan behar ibilgailuaren bereizgarririk edo modelo eta/edo motorizazio izendapeneko plakarik, eta markaren identifikazio plakak errotulazioa oztopatzen edo eragozten badu, plaka hori ere kendu egin beharko da (non eta plaka hori ez den maletategia edo kamera sistema irekitzeko elementua).

Ibilgailuen atzealdean:

- Luzetarako lerro beltza, 70 mm-ko altuerakoa, 10 urteko kalitateko binilo autoitsasgarrian, atzeko kristalaren amaieratik hasita.
- Luzetarako lerroa, 10 urteko kalitateko binilo autoitsasgarrian, 70 mm-ko altuerakoa, atzeko atearen zabalera osoa hartzen duena, haren beheko aldean (ikus irudia). 3M materiala **280-72** erreferentzia **(gorri islatzailea)**.

4.4.5. LEGENDAK

- **"UDALTZAINGOA"**, 10 urteko kalitateko binilo autoitsasgarrian, Arial Black letra-mota, 40 mm-ko altuerakoa eta kolore zuri islatzailean, ibilgailuaren erdian eta zerrenda beltzaren gainean.
- **"A-1"** (edo auto bakoitzari dagokiona) atearen eskuineko beheko erpinean ezarriko da, 90 mm-ko altuerakoa, marra gorri islatzailearen gainean (dagoen espazioaren arabera).
- C092 Atearen beheko ezkerreko erpinean kokatua, 90 mm-ko altuerakoa, marra gorri islatzailearen gainean, telefonoaren piktograma gorriz eta testua beltzez (dagoen espazioaren arabera).
- Udalerriko armarriaren itsasgarria jarriko da ezkerraldean eta ikurrina korporatiboa eskuinaldean, 110 mm-ko altuerakoak (ikus irudia).
- Nolanahi ere, polizia legenden errotulazio egokia bermatu beharko da, eta ez dira distortsionatuko ibilgailuaren marka edo modelo bereizgarrien bidez.



4.4.6. AURREALDEAN

Aurreko kapotan zerrenda beltz bat jarriko da aurrealdean, bai eta irudi korporatiboa ere, "Udaltzaingoa" legendarekin eta Eguzkilorearekin. Ibilgailuaren aurrealdeko konfiguraziora egokituko da haren diseinua (ikus irudia).

4.5. BEIRAK

Ibilgailuetako beirei (haizetakoa izan ezik) gutxienez 300 mikrako bandalismoaren aurkako xafla aplikatuko zaie, P2A sailkapena duen erresistentzia balioarekin UNE 356 arauaren arabera, 4 mm-ko lodierako beira epelaren gainean.

Haizetakoko eta aurreko guneko beirak izan ezik, gainerakoek ilunduta egon beharko dute, % 50eko argi transmisioarekin eta honako ezaugarri tekniko hauek beteko dituen xafla edo film batez babestuak:

- Jatorrizko kristalaren ezaugarri optikoak izan beharko ditu, argi transmisioaren maila izan ezik. Iluntasun gorena bermatu beharko da alboetako atzeko leihoetan eta atzeko atean. Iluntasun maila, ahal dela, indarrean dagoen legeriak baimentzen duen gehienekoa izango da.
- Filmak kristalezko gainazal guztiak hartuko ditu.

Dagokion homologazioaren ziurtagiri energetikoa eskatu ahal izango da, ofizialki onartutako laborategiak emana.

4.6. ERALDAKETA, ATXILOTUEN KITA ETA MATERIAL OSAGARRIA

Hornitutako patruila ibilgailuetan honako elementu hauek sartu beharko dira:

Instalatu beharreko sistema guztiak Industria Ministerioak homologatuak eta legeztatuak izango dira (IAT estazioan) eta ibilgailu bakoitzaren Azterketa Teknikoko Txartelean islatu behar da hori.

- Atxilotuen garraiorako kit berezia, aireztapen sistemarekin eta babes panelekin atzeko ateetan, atzeko bidaialekua aurrealdekoarekin bereizteko manpararekin, ateak aurreko gunetik blokeatzeko sistemarekin. Atzeko ateetako beira jasogailuak aurreko aldetik blokeatzen direla bermatu beharko da.
- Atzeko lurzorua ABSn edo antzeko batean, gutxienez 1 cm-ko diametroko hustubideekin eta kanporako irteera mugatuarekin, saneamendu egokia ahalbidetzeko.
- Eserleku bikoitza ABSn edo antzeko batean, 2 atxilotu eramateko egokia den segurtasun uhaletarako erregistroarekin eta ertz zorrotzik gabe.
- Blokeo elektrikoko sistema duten atzeko gerrikoak, kontrol aginteak ibilgailuaren aurreko aldean dituena.
- Larrialdietako irekitze sistema mekanikoa atzeko ateetarako. Atzeko ateak kanpoaldetik baino ezin izango dira ireki.
- Bi (2) linterna, potentzia handienean gutxienez 600 lumen dituztenak, kargagailua instalatua eta ibilgailuaren kontaktuari konektatua dutela. Dagozkien kono gardenekin.
- Irakurtzeko lanpara aurreko paneleko albo batean kopilotuak erabiltzeko, pizteko etengailuarekin.
- Poliziaren Tetra igorgailua instalatzeko aurreinstalazioa eta kableak. Tetra terminala ez da hornitu beharrik izango.
- Maletategiaren barrualdea antolatzeko sistema, baldintza teknikoen agirian adierazitako erabilera orokorreko materialak hartzeko edukiera duena (su itzalgailua, konoak, zinta metrikoa, desfibriladorea, seinale tolesgarriak, esku hartzeko ezkutua...).



- Maletategiko atzeko erretilu zurruna, idazteko euskarri gisa erabiltzeko, esate baterako.
- Erretilu zurruna argiztatzeko led zerrenda, pizte etengailuduna.
- Maletategiko hondorako alfonbra edo gomazko estaldura.

Baldintza Teknikoen Agiri honetan jasotako ekipamenduen elikadura elektrikorako kableen banaketa behar bezala ezkutatua eta babestua geratzeko moduan egingo da, ibilgailua normaltasunez erabilita ez ukitu edo kaltetzeko moduan. Terminal normalizatuen bidez konektatuko dira kable horiek elementu desberdinekin. Nolanahi ere, behe tentsioko instalazioei buruz indarrean dagoen araudia bete beharko du instalazio elektrikoak.

Babes elementu gisa, fusibleak erabiliko dira, eta ibilgailuaren serieko eredu berekoak izan beharko dute. Zentralizatuta jarriko dira motorraren gunean, ibilgailuak dituenetatik bereiz. Ibilgailu bakoitzaren erabilera eskuliburuan adieraziko da haien konexio modua, antolamendua eta edukiera. Seriekoa ez den besteren bat instalatu behar izanez gero, adierazten direnen ondoren jarri beharko da. Oro har, ez da onartuko aurkitzeko zailak diren aireko fusiblerik.

Eskainitako sistema elektrikoak karga eta biltegiratze ahalmen nahikoa izan beharko du ibilgailuaren ekipamendu elektrikoari gehitzeko instalatutako polizia ekipamendua elikatzeko. Beharrezkoa izanez gero, bigarren bateria bat instalatuko da polizia hornidurako ekipo osagarriak elikatzeko. Nolanahi ere, geldirik dagoela ibilgailua behar bezala elikatzen dela eta polizia sistemek behar bezala irauten dutela bermatu beharko da. Lizitatzaileak bere eskaintzan justifikatu beharko du hornidura elektriko egokia duela polizia ekipamenduak sortutako lehentasunezko kontsumo gehigarriei erantzuteko, hala nola igorgailua, linternak, etab.

5. AUKERAKO ELEMENTUAK

Baldintza Teknikoen Agiri honen aurreko ataletan eskatutako 2 ibilgailuak hornitzeko hileko kanonaren eskaintzaz gain, honako elementu hauek ere eskaini beharko dira, eskainitako unitateko prezioen eta ezaugarrien arabera kontratatuko direnak:

- Eskainitako ibilgailuekin bateragarria den **kargatze puntua**, jarraian adierazitako ezaugarrien arabera
- **ARGI ZUBIA** panel eraisgarriarekin, 4.2 atalean eskatutako argi zubi estandarraren ordez. Argi zubi horrek panel eraisgarria eta mezudun panel bikoitza ditu. Argi perimetrala, gutxienez 55 led urdin dituena. 2 argazki led zuri aurreko aldean, 2 argazki led zuri alboetan, 6 foku led anbar atzealdean, norabide adierazleak, 150 W inguruko bozgorailua, sirena anplifikadorea.
- **BI KAMERAK OSATUTAKO MULTZOA (AURREALDEKOA ETA ATXILOTUEN GUNEKOA), GRABAZIO DISKO GOGORRAREKIN, KUTXA ESTANKOAN**. Bi kamera, irudiak grabatu eta disko gogor batean gordetzeko, autoaren barruan, kutxa estanko batean. Kutxa hori baimendutako langileek bakarrik erabili ahal izango dute.

Elementu horiek beharren eta aurrekontu erabilgarritasunaren arabera kontratatuko dira, eta Irungo Udalak ez du kontratatzeko konpromisorik hartuko.

5.1. KARGATZEKO PUNTUAREN HORNIDURA

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegitura egiteko eta gauzatzeko, honako alderdi hauek hartu beharko dira kontuan:

Gutxienez, karga motel bati dagozkionak izango dira (sei eta zortzi ordu artekoa).

- Gehieneko korrontea: 16A
- Tentsioa: Monofasikoa: 230V/50hz (2P+T)
- Irteerako gehienekoa: 3.7 kW

IP, IK graduak, gutxienez:
- IP 54 babes maila
- IK 08 babes maila

Kargatzeko modua/ Araudia: IEC 61851

Konektore mota: eskaintzen den ibilgailuarekin bateragarria

Nolanahi ere, ezaugarri guztiak bateragarriak izango dira eskainitako ibilgailuarekin.

Kargatzeko puntua hornitu eta instalatu **baino ez** da egin beharko, eta ez da kableak ezarri eta eraikineko instalazio elektrikora konektatu beharrik izango. Ohiko mantentzaileak egingo du lan hori, kable tiradak eta egungo koadroak ezagutzen baititu.

Kargatzeko puntuak 5 m inguruko mahuka izango du, ibilgailua aparkalekuan jarri ala ez, kargatu ahal izateko. Mahuka horrek beharrezko konektorea izango du, lizitatutako ibilgailuaren arabera.

Konektoreak gutxienez 0,6 m-ra eta gehienez 1,6 m-ra egongo dira lurzoruaren mailatik, eta indarrean dagoen araudia beteko dute.

Babes elektrikoak:

- Zuzeneko kontaktuak: ekipoak ez du erabiltzaileak eskuratzeko moduko zati aktiborik izango. Alde aktibo guztiek inguratzaile baten barruan egon beharko dute, edo erabiltzaileak haiekin kontakturik ez izateko beharrezko baliabideak izan beharko dituzte.
- Zeharkako kontaktuak: ekipo metaliko guztiak lurrera konektatuta egongo dira, erabiltzailea zeharkako kontaktuen aurrean babesteko.

Horretarako, kargatzeko ekipoek honako hauek izan beharko dituzte:
- Babes diferentziala.
- Etengailu magnetotermikoa.

Homologazio ziurtagiriak:

Eskaintzen diren ibilgailu hibrido entxufagarrien fabrikatzaileak homologatu behar ditu kargatzeko puntuak, eta bateragarriak izan behar dute haiekin.

Kokalekua eta jabetza

Kargatzeko puntua Udaltzaingoaren eraikinaren barruko aparkalekuan egongo da. Kargatzeko puntu bat instalatuko da gutxienez.

Kargatzeko puntuaren jabetza

Kontratua amaitutakoan, kargatzeko puntuaren eta harekin lotutako instalazioaren jabetza udalaren eskuetara pasako da. Horrenbestez, eskainitako prezioetan kontuan hartu beharko da egoera hori.

Ekipamendu horiek instalatu eta entregatzen diren unetik, Udalak mantenduko ditu.

Ibilgailu elektrikoak elektrizitatez hornitzeko instalazioa Behe Tentsiorako Araudi Elektroteknikoan dagozkion Jarraibide Tekniko Osagarrien eta energia elektrikoa banatzen duten konpainien arau partikularren arabera egingo da.

Indarrean dagoen araudia bete beharko da, eta, bereziki, apirilaren 9ko 6/2010 Errege Lege Dekretuan, maiatzaren 9ko 647/2011 Errege Dekretuan, energia kargatzeko zerbitzuak egiteko sistemaren kargen kudeatzailearen jarduera arautzen duena, eta abenduaren 12ko 1053/2014 Errege Dekretuan jasotakoa. Dekretu horren bidez, behe tentsiorako erregelamendu elektroteknikoaren (abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretuaren bidez onartua) BT 52 "Helburu berezietarako instalazioak, ibilgailu elektrikoak kargatzeko egitura" izeneko Instrukzio Tekniko Osagarria onartzen da eta haren beste jarraibide tekniko osagarri batzuk aldatzen dira.

6. INGURUMEN IRIZPIDEAK

Eskainitako ibilgailuek honako baldintza eta zehaztapen hauek bete beharko dituzte nahitaez:

- CO_2 isurien mailak ahalik eta txikienak izatea baloratuko da, eta gehieneko muga 50 g/km izango da.
- Euro 6 isuriei buruzko araudiak bete beharko dituzte.
- Mantentze lanetan sortutako hondakinak behar bezala kudeatu beharko dira baimendutako kudeatzaileen bidez.

7. IBILGAILUAK ESKURA JARTZEA

Ibilgailuak eskura jartzea da behar bezala errotulatuta, matrikulatuta, homologatuta eta, hala badagokio, IAT pasata entregatzea, behar diren zirkulazio baimen guztiekin. Hori guztia, gehienez ere, eskainitako entrega epearen barruan egin beharko da, eta, betiere, baldintza agirietan zehaztutako ibilgailuak entregatzeko gehieneko epea amaitu baino lehenago. Epe hori **6 HILABETEKOA** da.

Kontratua gauzatzeko epea eta, beraz, fakturatu beharreko zerbitzua bi ibilgailuen entrega eta harrera akta sinatzen den unean hasiko da zenbatzen.

8. PROBA ESKAERA

Ibilgailuaren prestazioak eta udal zerbitzuek eskatutako erabilerarako egokitasuna egiaztatzeko, antzeko ezaugarriak dituen ibilgailu bat probatzeko eskatu ahal izango da eskaintza teknikoak balioesten diren bitartean. Horretarako, eskaintzaileak Irungo Udalaren esku jarri beharko du antzeko prestazioak dituen ibilgailu bat, gehienez ere Irundik 100 km-ra, denbora txiki batean.

Udaltzaingoko arduradunek ibilgailuen balorazioa egin ahal izateko egiten da proba eskaera, eta, beharrezkoa izanez gero, ibilgailuen ezaugarri teknikoei, ergonomiari eta garrantzitsutzat jotzen diren xehetasun guztiei buruzko balorazioa edo txosten teknikoa aurkezteko.

9. DOKUMENTAZIO TEKNIKOA

Lizitatzaileak, eskatutako bi eranskinez gain, proposatutako irtenbidearen txosten deskribatzailea aurkeztu beharko du. Txosten horretan zehaztuko da baldintza agiri honetan deskribatutako eskakizun eta funtzionalitate guztiak betetzen direla, bai eta planteatutako hobekuntza teknikoak ere.

Hornitutako ibilgailu bakoitzarekin honako dokumentazio hau entregatuko da:

- Ibilgailuaren fitxa teknikoa
- Ibilgailuaren erabilerari eta mantentze lanei buruzko eskuliburua eta berme liburua. Hartan jasoko dira entrega data eta aurreentrega eta egindako transformazioaren homologazioa egin duen enpresaren zigilua.
- Instalazioen eskema eta deskribapena, egindako eraldaketak eta osagarrien funtzionamendua.
- Ibilgailuaren dokumentazioarekin batera, egindako eraldaketaren txostena eta instalatutako ekipoen marka-modeloa jasotzen duen instalazio elektrikoaren krokisa aurkeztuko dira.

10. IBILGAILUAK ITZULTZEA

Kontratua amaitzean, udal teknikariek adierazi ondoren, esleipendunak dauden egoeran jasoko ditu ibilgailuak. Esleipendunak egingo du jasotze hori, bere kontura eta bere baliabideekin, eta, kontrakoa adierazten ez bada, entregatu ziren leku berean izango da (Irungo Udaltzaingoaren eraikinean).

11. ESLEIPENDUNAREN BESTE BETEBEHAR BATZUK

- Esleipendunak Espainian eta Europar Batasunean edo Lanaren Nazioarteko Erakundean indarrean dauden gizarte eta lan arauak errespetatu beharko ditu dagozkion zerbitzuak gauzatzean.
- Lizitatzaileek aurkeztutako edo kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren dokumentazio, publizitate, material edo irudi guztietan hizkuntza ez sexista erabili beharko da, emakumeen aurkako bereizkeria edo estereotipo sexistak eragiten dituzten irudiak saihestuz, eta presentzia orekatua, aniztasuna eta erantzunkidetasuna berdintasun balioekin sustatuz.
- Enpresa esleipendunak derrigorrezkoak diren laneko segurtasun eta higiene neurriak hartuko ditu langileen bizitzan, osotasunean eta osasunean eragina izan litzaketen arriskuei zorrotz aurrea hartu ahal izateko.
- Halaber, honako betebehar hauek betetzen dituela egiaztatu beharko du:
    - Kontratatutako jarduerari dagokion prebentziozko jardueraren plangintza eta arriskuen ebaluazioa.

- Kontratuaren gauzatzearekin loturiko langileei prebentzioaren alorrean beharreko prestakuntza eta informazioa eman zaiela.
- Beharrezkoak diren norbere babeserako ekipamenduak banatu izanaren egiaztagiria edukitzea.


Erosketa eta Ekipamendu burua
Irunen, sinatzen den datan.

I. ERANKINA – IBILGAILUEN EZAUGARRIAK

ZEHAZTAPENAK	BALDINTZA AGIRI TEKNIKOAN ESKATUTAKO GUTXIENEKO EZAUGARRIAK
Karrozeria mota	SUV / Monobolumena
Karrozeriaren kolorea	Zuria errotulazioarekin
Erregaia	Hibrido entxufagarria
Okupatzaile kopurua	5 plaza
Gutxieneko potentzia konbinatua	130 ZP baino gehiago
Direkzioa	Lagundua
Atxilotuen kit homologatua	Bai
Ate kopurua	5 ate
Aurreko ateak	Irekitzeko orriak
Atzeko ateak	Orri irekitzea, aurrekoen noranzko berean. Ez da lerragarririk onartuko
Atzeko karga atea	Atzeko atea, gorantz irekitzen dena
Luzera	4300 mm eta 4650 mm artean
Gutxieneko altuera	1520 mm
Gutxieneko zabalera (Ispilurik gabe)	1800 mm
Maletategia	Gutxienez 320 litroko edukiera 5 plazako konfigurazioan, edo ondoko elementu hauek antolatzeko eta erraz eskuratzeko gutxieneko edukiera duena: Desfibriladorea Esku hartzeko ezkutua (1000x600mm) 6 seinaleztapen kono edo antzekoak Plastikozko zinta biribilkia 1 zizaila 1 palanketa 1 botikin 1 su itzalgailu 1 neurketa gurpil tolesgarri 400x400 mm-ko seinale tolesgarrien maleta bat Esku hartzeko bi kasko Maletategiko atzeko erretilua, zurruna eta oinarri laukoa
ABS	Bai
Trakzioaren eta egonkortasunaren kontrola	Bai
Larrialdiko balaztatzeari laguntzeko sistema	Bai

Aurreko eta atzeko disko balaztak	Bai
Segurtasun pasiboko sistema	Airbagak aurrealdean, alboetan eta gortina edo burualdean, aurreko bi plazetan
Aire girotua	Bai
Klimatizagailua	Bai
Aurreko eta atzeko aparkatzeko sentsoreak	Bai (atzekoaren ordez, kamera izan dezake)
Ixte zentralizatua eta urrutiko agintea duena	Bai
Lainotako aurreko eta atzeko argiak	Bai
Kanpoko atzerako ispilu bikoitza bi aldeetan, ibilgailuaren perimetroa kontrolatzeko	Bai
Aurreko eserleku ergonomikoak, altuera erregulatzeko modukoak eta gerrialdean atseden hartzeko sistemarekin	Bai
Eserlekuak sendoak eta indartuak alboetan, armaren marruskadurek eragindako higaduraren aurka, eta bizkarraldean eta alboetan sendotuak	Bai
Bolante erregulagarria altueran eta sakoneran	Bai
Argiak automatikoki pizteko sentsorea	Bai
Gurutzatze abiaduraren kontrola	Bai
Euri sentsorea	Bai
Mapa irakurgailua / GPS	Aukeran
Aurreko xenon argiak	Bai
Beroaren aurkako beirak	Bai
Beira tindatuak	Bai
Atzerako ispilu elektrikoak eta termikoak	Bai
Zorura egokitutako gomazko alfonbratxo desmuntagarriak, erresistentzia handikoak	Bai
Bluetooth esku libreen sistema	Bai
12 V-ko hartualdiak (gutxienez aurrealdean eta maletategian)	Bai
Pneumatikoen presioa kontrolatzeko sistema	Bai
Pneumatiko mota: erregaiaren eraginkortasuna, bustian eustea, kanpoko zarata maila	Adierazi

II. ERANSKINA - IBILGAILUAREN NEURRIEN FITXA



DIMENSIONES

DISTANCIA	MM
A	
B	
C	
D	
E	
F	
G	
H	
I	